



Mancomunidad  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

Servicios de la  
Comarca de Pamplona s.a.  
Iruñerriko  
Zerbitzuak e.a.

Iruñerriko Mankomunitatearen sozietateak, IZSAk (Uraren Ziklo Integralaren, Hiri Hondakinen, Hiri Garraioaren, Taxiaren eta Eskualdeko Ibai Parkearen zerbitzuak kudeatzen ditu), egiturazko lanpostu hau bete behar du:

# APLIKAZIOEN PROIEKTUEN KUDEATZAILEA

2024/000011 erref.

Informazioaren Teknologien zuzendaritzaren pean, aplikazio berriz, informatikako prozesuz eta hobekuntza adierazgarri hornituko du, zehazten, kudeatzen eta administratzen, erakundearen beharren eta jasotako aginduen arabera, premietara eta prozeduretara egokituta dauden aplikazioak emateko erakundeari, enpresaren bilakaerarekin eta beharrekin bat.

## **BALDINTZAK:**

- Lanposturako eskatutako titulua: **goi-mailako unibertsitate-titulua edo gradua**, arlo teknikoetan, gehienbat, **Informatikan, Ingeniaritza informatikoan, Matematikan, Fisikan, Telekomunikazioetan** eta abarretan.
- **Indarrean dagoen gidabaimena**, B motakoa (lanpostu honek eskatzen du Iruñerrian ibili behar izatea).

## **BALORATUKO DA:**

### **Baloratu ahal izango diren gaitasun profesionalak:**

- **Esperientzia**, adierazitako eginkizunei eta gaitasun teknikoiei buruz deialdian hasiera batean deskribatu diren eginkizunekin lotutakoetan: 2 puntu urteko, gehienez 10 puntu.
- **Masterra edo graduondoko ofiziala, eginkizunarekin lotutakoa (gehienez 7 puntu):** kreditu-kopuruaren arabera (60 eta 120 artean) eta gaitasun teknikoekin lotutako edukien arabera, gehienez ere hiru puntu emango zaizkio master ofizial bakoitzari.
- **Ingelesa**, gutxienez B2 maila (gehienez 3 puntu: puntu 1 B2, 2 puntu C1, 3 puntu C2).

## **ESKAINTZEN DA:**

Enpresa publiko baten plantillan sartzea. Ordainsari-maila erakargarria, eskatutako eginkizunekin eta baldintzekin bat datorrena, gainerako lan-baldintzekin batera IZSAren Hitzarmen Kolektiboan araututa dagoen sistemaren arabera. ([Hitzarmen kolektiboa](#)).

## **INTERESDUNAK:**

**Interesa duten pertsonak** gainerako informazioa deialdiari dagokion dokumentuan kontsulta dezakete eta "Lan eskaintzen" atal honetan bertan aurkeztu behar dute curriculumak: <https://www.mcp.es/eu/lan-eskaintzak>. **2024/000011 erreferentzia** jarri behar dute eta **2024ko apirilaren 28a** bitartean egin behar dute.

IM-IZSA erakundeak hartua du **emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunarekiko konpromisoa**. Hori dela-eta, espresuki gonbidatu nahi ditu deialdi honetara pertsona gaituak eta ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

Datuak Babesteko araudian ezarrita dagoena betetze aldera, jakinarazi behar dizugu formulario honetan biltzen diren datu pertsonalak fitxategi batean sartuko direla eta helburu bakarra publizitatea egindako hautaketa-prozesua kudeatzea izango dela. Datu horiek ez zaizkio beste inori lagako, legezko xedapenek hala egitea agintzen badute izan ezik. Halaber, jakinarazi behar dizugu fitxategiaren arduraduna IZSA izango dela eta harengana jo ahal izango duzula datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak eta daukazun gainerakoak gauzatzeko helburuarekin.

Pribatutasunari buruzko informazio gehigarria eskatu eta zure eskubideak bete ditzakezu helbide elektroniko honetan, [protecciondatos@mcp.es](mailto:protecciondatos@mcp.es), indarrean dagoen araudiaren arabera.